




**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

JOSE ANTONIO RETOLAZA

**Agur, gero arte,
egun andirarte**



IZADIA ZAINDU XV.

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2014-2015 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 47. IKASTAROA
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

**47. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura


ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

JOSE ANTONIOren

ILETAn izandako Omilia (Ap 21, 23-27; Jn 12, 35-37) eta ilen aldeko "memento"an abestutako bertsoa.



Erraz urtengo leuskit gure Jose Antonioren ez goralpen bat, mordoa baño.

Baña esanda dago ez dala omilia panejirikoak egiteko edo il dana goratzeko, Jaunaren Berbeak egoera jakin bati emoten deutson argitasuna geureganatzeko baño, edo geureganatzen alegintzeko beintzat.

Ezin itzi, ostera, Jose Antonioren bizitzako iru zutabe izan daitekezanak aitatu barik:

- Bere kristau fede sendoa,
- gure Erriarenganako bere atxikimendu-lotura estua eta sakona
- eta bere familiarentzako maitasun goxoa.

1. Uste dot beti izan dauala, unerik zailletan be bai, kristau fede sakona. Nire ustez, fede orren barruan, errime sartuta eukan fede orren ardatza dan egia au: Gizakundea: Jesus gizon egin zala, geu lango gizakia, baño gizon judutarra, erri baten semea, errian buru-belarri sartuta egoana, erria maite ebana: Bere erriaren ondamendia aurreikusiz, negar egin ebana.

2. Jesusen jarraitzaileak be beste orrenbeste egin bear ebala uste izan eban Jose Antoniok. Ortik bere - gure - Erriaren kinka larrietan min izatea, Erriaren iraupenaren eta zorionaren alde bere bizi eta indar guztiak jarrea. Beti geratuko da Euskal Erria beragaz zorretan Kili-Kili sortuaz eta landuaz egin euskun ordaindu ezineko mesedeagaitik. Or geratzen jaku gure erriarenganako maitasunak eragindako ainbeste eta ainbeste ekintza jator: Euskaltzain urgazle lez egindakoak, dantzari trebe eta dantza irakasle fina izanez egindakoak...

Eta oraintxe sakristerian entzun dodanez, ez Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan bakarrik, baita Nafarroan be umeekin sekulako lanak...

3. Eta aitatu dodan irugarren zutabeari buruz, eurek bakarrik dakie senar lez eta guraso lez, emazte eta seme-alaben alde egindakoak.

Zer esanik be ez, emen geratzen eta geratuko dirala berak bere bizitzan emondako ainbeste erakutsi... garrantzitsuak.

Baña geratzen diran orreik eta geratzen diran nik ezagutzen ez do-
dazan ainbeste eta ainbeste geiago, zer dira bera **bein betiko** joan
bajaku?

Batek senarra galdu dau, batzuek aita galdu dabe, senidea, laguna, adizkidea
galdu dogu... baña, **bein betiko** galdu ete dogu, ala **bein beingoz** bakarrik?

Bein betiko izan balitz, ez gengokez emen, Eleizan, Eu-
karistia ospatzen.

Gu Eleizan, Eukaristia ospatzen egoteak, "**bein
betiko**" ori kendu egin bear dogula esan gura
dau, eta "**bein beingoz**," gero arte" jarri bear
dogula.

Berak ain sakon sartuta eukan fedea
diñosku, bere ekintzak, bere maitasunak,
bere asmoak, bere amesak, bere bizitza
osoa, bere izate osoa, ez dala galdu, bere
osotasun betera edo **betetasun osora**
eldu baño.

Au baieztatzen daben Biblia atal mor-
doak aukeratu neikeezan. Aukeratu do-
dazanak Jose Antoniori azken urteotan
begietatik neurri andi baten ies egin eu-
tson argia aitatzten dabe.

Apokalisiak, irudiz beteriko txatal orretan,
gizon zintzoak ez dauala aurrerantzean
gaurik izango, agintzen deusku. Jain-
ko Jaunak egingo deutse argi,
diñosku.

Eta Juanen Ebanjelioak,
Jesus dan argiari si-
nisteko diñosku,
argiaren partai-
de izan gaitezan.

Bete betean uste
dogu, oso osorik bete
dala ori Jose Antonio-
gan. Zoriontasuna dan Ar-
giaren partaide da.

Orregaitik, eskerrak Jaungoikoari.

**Eta Jose Antoniori, Agur, gero arte, Egun
Andirarte.**



ILDAKOEN GOMUTAN

Jose Antonio gure laguna
dogu guk orain gogoan.
Gurago geunke une onetan
bizirik balego ondoan.
Fedea erakusten deuskuna
esango deusuet nik bertsoan:
zoriontsu ta biziz beterik
dago Jaunaren altsoan.

Bere gomuta, bere izena
gugan betiko da sartu.
Jaungoiko Jauna, gure otoitza
bere alde Zuk onartu.
Aren bizitza eta gurea
egizu, Jauna, Zuk artu,
egunen baten egin gaitez
zorion betez alkartu. (Bis, erriak be abestuz)

J.B.GALLASTEGI



AGUR JOSEBA ANDONI RETOLAZA




Retolaza' tar Joseba Andoni
 aundia bezain apala
 senar maitale, guraso zuzen
 lagun en lagun leiala
 euskera Amaren seme zintzoa
 abertzale serbitzala.
 Zelan onartu une batean
 guztia amaitu dala ?
 Esan eiguzu ez zoazela,
 geugaz gelditzen zarala.

Euskaldunaren kontzientzian
 egin zendun kili-kili
 naiz eta alde guztietatik
 mugak ezartzen ibili
 Bazoaz baña zure gomuta
 ezin da gugan itzali
 Biztu deuskuzun izar barritik
 zure argia bidali,
 zeuk gura legez Euskera daigun
 Egunero erabili.

Jon Enbeita

**UDAKO EUSKAL IKASTAROA
 DERIO**





On Jose Antonio Retolaza, Mila eta Iñaki Egurrolari Euskalzaleok gure esker onena

DOINUAK- Zortziko txikia (Orioko Balea, Nire sentimentua, Maritxu nora,
Uso zuri polita, txapela jantzi eta, Xarmargarria zara...)

1)

ERRETOLAZA Jauna
esana da dana,
Euskal mundu osoa
barman darama,
gure balore danak
landuz banan bana;
kultura ta fedea
elkartzen bikaina.

2)

JOSE ANTONIO JAUNA
Euskal eredia,
"Kili kili" bikaina
berak du sortua,
mende erdi osora
rautera eldua;
Egurrolak lagunduz
finko du gogua.

3)

Ikasle-irakasle
polita ekina,
bereziak zarete
arritzeko adina,
Kili-kilin bidea
zelako lan fina;
euskaldunon partetik
zuentzat domina.

4)

Elizako euskarak
berau aintzindari,
Euskal leen meza ere
zor zaio berari,
Don Klaudiok jarraitu
Zeu zinen gidari;
aurrekulari ona
plazetan dantzari.

5)

Lagunen lagun ona
alaia gizona,
bertuterik onenak
ona ta sakona,
agintari ustelek
erdi abandona;
guretzat nausi zara
zuri Euskal diploma.

6)

Denbora pasa aala
nabarmendua da,
zelako eragina
zelako bultzada;
político ta bestei
emendik eupada;
Retolazaren lanei
aitormen zabala.

7)

Begirunea baita
Mila ta Egurrola,
andere/jaun argiak
ingurua antola,
Euskal Kulturaren jarritz
garrantzi ta axola,
iruko talde onek
mugituz gondola.



8)

On Jose Antonio
ai zelako lana;
dantza, Kili-kili ta
elizan afana,
euskara ardatz dela
itzelezko zama;
guztia eskertzero
biotzak narama.



**ONDO
ETORRIA**

Pilare Baraiazarra Txertudi
2014ko martxoa



Fedez ta pozez etorri gara
Jesus Jaunaren Aurrera,
Beragandikan bizitzarako
indar barriak artzera.
Ilbarri dogun Jose Antonio
dakargu gaur otoitzera,
gozau daiala betiko poza
zerukoekin batera (bis)

Aita Felix Bilbao
Muxikan, 2014-03-13an



ZERU - ZALEAK

Bein arratiar batzuk Gorbeia mendira joan ei ziran, andik zerura igoteko asmoz. Orretarako erriko saski edo otzara guztiak batu ta ara eroan ebezan.


Erritarren artean mutil zoli ta bizkorrena begi jo eben lenengo ikustatea edo proba egiteko.

Otzara ta saki guztiak alkarren gañean ipiñita gero, mutil zoli ta bizkorren ori gorengo otzara ganera igo zan eta andik bere erritarrai esan eutsen:

Bat bear joat zerura igoteko, otzara bat.

Geiago ez egoan inguru guztietan, eta zeru-aldeko mutil bizkorrari otzara bat emoteko, zer egin eben ? Azpirengoa kendu...

Mutil bizkorra ez ei zan, bizirik beintzat, zerura eldu...



Begoñako Ama

Artagan mendi goian
ara or mirari,
artzain bati agertu
jako Andra Mari.
Bilbotik Begoñara
amaika malladi.
Zerura igoteko
bidea dirudi.

Zeru zale ba zara
orra or malladi:
amar aginduetan
uts barik ibilli.
Lenengoa da, barriz,
guztien oñarri;
au kenduten ba dozu
zara guztiz larri.

Uriguen tar Zenon C.P.

Lourdes eta Paulo´ren Urrezko ezteguak

Eta txangolaritasunezko – saria

1963 – 2013

Praga, Budapest ta Biena´tik zear IV.



Ostera txangolaritzaren aria artuta.

Goizeko 11´tan geratu giñan bidean, eta larritansunik askatu eta zeozer arututa 11´1/2n ostera igon gendun busera, eguerdiko 1´etan Bienara eltzeko.

Bienara eldu giñanean jatetxe batera eroan ginduzan bazkaltzera, jan ostetik Bienako Uriaren edertasunak ikusteko.

Biena inguratzen eta bota eben ormake kaletik, Ringstrasse´ko kaletik deitzen dana sartu gintzazan eta eres antzerki, erakustokiaren auzunea, Buro Antzokia, eta Udaleko jauregi ederrak ikusi genduzan arratsaldeko zazpirekarte.

7retan eldu giñan ROOMZ arroztetxe ederrera, eta zorro ta giltzak artuta gure 115eko gelara joan giñan, jantziak apaltokian egokitzeko eta gure garbitasunak eginda gero afaltzera beratzeko.

Oraingoan, Ernani´ko 8 andra gazte ta zar alaiarekin afaldu gendun, eta maiosteko elkar adituzko berbalditsu luze bat ondore, lo egitera joan giñan 10´1/2etan.

2.013´an Urrilla´ren 19´ko larunbatean eta zazpigarren eguna.

7retan jagi giñan 8retan gosalduteko, eta busera igon ondoren, Bienako uriak daukazan edertasunak ikustera joan giñan.

Ikustaldi ederra emon geuntson erriari, San Karlos Borromeoren eleiza, 1.884ko urtean egin zan Goi Maillako Ikastexea, Arratx ta Ferstel



jauregi ederrak Freyung´ko kalean dagozenak, San Esteban´en Eleiz Nagusia, 1.869ko urtean egin zan eres antzerki´ko jauregi ederra, Goinko ta Beko Belbedere jauregi aberats eta ospatsuak, arik eta 9´1/2etan Stxönbrunn´eko jauregi aundi ta ederretan, I Maria Teresa, Babierako Isabel (Sisi) eta I Franzizko Jose, bai ta Napoleon be bizi ziran gelak ikustera, eta inguraturik daukan lorategi edo baratz eder eta zabala.

Arratsaldea aske itxi euskuen, eta Madrilleko Esteban ta Maria Antoniak ez ebelako erritik ibili gura erosketarik egiten, Estebanen anaia Domingo Baskuñana ta bere emazte Nabas´tar Josefagaz urten gendun Lourdes eta nik erosketa orreik egiten.

Alai ibili giñan dendari denda ango gauzak erosi ta ikusten, eta Lourdes´ek Mintegi´tar Josu billobari futboleko alkondara bat agindu eutson lez, bere billa asi giñan.

Ez gendun aurkitzen alako dendarik eta taxi bat artu gendun, berak aurkitu dagien denda ori, eta ordaintzen joan nintzanean, berak ez eben euki ausi dirurik, nik, nire diru zizkutik asita aurkitzen, batez, garnet agiri edo ta diruaren zorroa ezarleku gaiñean itxita konturatu barik.

Taxisetik beratu gintzazanean, bereala konturatu nintzan diruaren zorroa ezar lekuan itzi nebala, eta taxise urtetan asi zanean, gure zaratak entzunda geratu zan.

Atea zabaldu nebanean, diru zorroa zelaian egon zan zabalik, eta artu ondoren, ikusi neban tolestuta euki nebazan zortzi 50eko diru paperrak ez zirala egon, eta berari itandu neutsoenean, berak lepoak altzau ebazan.

Domingo nire laguna taxisen izen lerroari zenbakiak artuta niregana etorri zan, baiña alperrik ziran gure alegiñak, arik eta nik bere zorroaren xe diruetatik eta eskuan euki zituzten 50eko bi eta 10eko bat diru paperrak kendu arte.

Ango erri zaiñari deitzeko egon giñan, baiña ikusita garrantxienerik garnet agiriak euki genduzela eta kendu neutsoezan diruagaitik ez ebela berak txistik egin, beste diruak ondo gordeta euki ebazalako, eskua emon neutson esanez diru orregaz aberastu egiten baaz, on egin daietsula.

Domingo ta ni arrittuta geratu gintzazan gertakizun orregaz, geiago erritarren diru kontuan, munduko errien artean leen amarren artean dagoela jakinda.

Baiña goian azaldu dautsuet zelan, erromatarren Kaizar Katolikotasunezko usai sakona daukiela Europako erdi inguru orreik, eta ez dago geiago zertan burutapen orreitan ibili, nondik eraginda agertzen diran maltzurtasunezko lapurtza orrein emaitzak jakiteko.

2.013´an Urrilla´ren 20´ko Igandea eta zortzigarren eguna.

Egun onetan, aruntz egin gendun bidai bardiña egin gendun onuntzerakoan.



Atutxa´tar Paul

Zornotza´n 2.014´an Urtarrilla´ren 7´an

IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA XV.



I Teobaldok 1.246an, Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzaiñarekin, Fueroak dirala eta ez dirala euki ebazan estaibada bidetik, gotzain onek zalantzan ipinten eutson Nafar erregetzak euki ebazan berezko eskubideak, eta IVn Inozensio Aita Santuak gogoratuz I Teobaldok gurutzezko gudan zer egin eban, lege berezi bat argituz: Bere baimen barik, iñork ezin leikela Teobaldo eleizatik kanporatu agertu eban.

Kontu aundian euki bear da, orduko denboratan errege baten bat edozer gauzagaitik elizatik eskomunikatuta kanporatu egiten ba ebela, erregetzako koroi ori, aske geratzen zala edozein printze katoliko artu egian, Aita Santuaren baimen guztiak eukinda erreñu orretan guda indarrean errege lez ezartzeko.

II In Karlos Txar deritson erregetzan⁽¹⁾, 1.348ko Iraillan, izurri baltza⁽²⁾ agertu zan, Nafartarren gizarte artean %tik, 70ean murriztu ebana eta lurgintzaren lanerako besoaren ezean agertu ziralako, Nafartarrak gose aundian sartuta, askori lapurketara emon eutsoen.

II In Karlosek, neurri gogorrek artu bear izan eban ekintza orreik bakezteko eta Frantziko erreñuaren edestilariak, nai ta erriak oso maite euki arren, Nafar erreñukoari zirikatze "TXAR" izen ori ipini eutsoen.

Nafarroako erregetzan, erregearen legezko eta sasi semeen artean, bekaizkeri⁽³⁾ aundiaren bitartez beti borrokan ibilita, eta kanpotik euki eben zirikitasun bidetik, erritarrak estutasun geiago-

(1) Nafarroako II Karlos "Txarra" = 1.332an jaiotako, 1.349-1.387rarte errege. (2) Izurri = peste. (3) Bekaiz = envidia.



tan sartu zitezen: Agramontes ta Beaumontesen alderdikeriak sortu ziran.

Europar edo eta Euskalerrian bardin sortuta, baiña Nafarrentzat batez be, oso gaiztoak izan ziranak.

Emen konturatu bear gara, Europako erregetza guztia, euren artean senituta egoala eta naigabezko borrokak edo asarre guztiak⁽¹⁾, bakoitzak gogoratzen ebazan erregetzaren eskubideetatik agertzen zirala, erritarrak morroi bezela, Foruen aipamenakaz ara ta ona borrokan ibilita, kontuan artu barik.

1.423an Urtarrillaren 20an, III In Karlos Biotz Aundikoak Nafar erregetza babesteko, Bianako printzerria sortu eban, bere illoba IV In Karlos izanda lenengo printze edo errege gaia.

1.441an baiña, I Blanka Nafarroako erregiña, Aragoiko II In Juanegaz ezkondu ta egon zana il zanean, ta euren seme IV In Karlos errege izendatu ondoren, II In Juan bere aita eta Fernando katolikuen aita izan zanak, erregetzatik bota eban.

IV In Karlosek, gaztelarren laguntza eskatu eban eta laguntza emon ondoren, Gaztelako printzeak Albaro de Lunari itandu eutsen: Baiña guk zer lortzen dogu Nafarroan laguntza oneikaz ?. Eta Albaro de Lunaren erantzuna: Jauna! 40 urteko anai guda izten dautsaguna.

Gaztelarrak, zelako gogoagaz lagunduko eutsen IV Karloseri ?.

II In Juanek⁽²⁾: I Juan izenagaz 1.441-1.479 Nafarroako errege lapurra lez, eta Aragoi ta Kataluniako II In Juan errege lez, 1.458-1.479 Urtarrillaren 19 raiño il zan arte agindu eban.

(1) Geienak bai beintzat. (2) Aragoi eta Nafarroako II Juan erregea = 1.397-1.479.

Beren seme alaba biak, Nafarroako errege erregeñak izan bear ziran IVn Karlos⁽³⁾ eta IIIn Blanka⁽⁴⁾, pozoituta il ebazan.

Nafarroako Igoa eta Aragoiko II Juan onek sortarazi ebazan, Nafarroa, Aragoi eta Gaztelako erreñuaren artean aurkako guda oneik, ez ziran amaitu: 1.522an Mayan, eta 1.524an Ondarribian, Nafarroaren askatasunezko ikurriñak beratu arte.

Eta edesti labur bat lez esan bear dot:

Nafarroako I Juan ta Aragoiko IIIn Juanen izenagaz ezagutuko zan eta IVn Karlos eta Fernando katolikuaren aita izan zanak, 1.441ean bere emazte Nafarroako erregeña I Blanka il zanetik asi zala, Nafarroa, Aragoi menpean ezartzeko ekintzakaz.

Gero, Vn Fernando katoliko´aren⁽⁵⁾ izenagaz ezagutu zanak, 1.512an Uztaillaren 21ean aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz⁽⁶⁾ agertuta, Nafarroa menperatu ebala.



Eta espainiako Igoa eta Vn Alemaniako Karlosek⁽⁷⁾, 1.522an Mayan ta 1.524an Ondarribian, Nafarroa, espainiaren mendepean egon edin lortu ebala, VI Alejandro, IIIIn Pio, IIIn Julio, Xn Leon, VIIn Adriano, eta VIIIn Klemente Aita Santu ta Zizneros´en gudu tresneri ta bedeinkapeneko laguntzagaz.

Or amaitu ote ziran Nafartarren askatasunak ? ez.

Nafartarren askatasuna oraiñarte, indarkeri aundiaren aurka ezin dalako besterik egin, Euskalherri osoa lez, estutasunezko larrialdi bat baiño besterik ez da igarotzen dabillena, beren askatasuna lortu arte.



(3) Nafarroako IV Karlos = 1.421an Peñafelen jaio, eta 1.461eko Iraillaren 23an Bartzelonan, gaitzepel edo bularre-tako miñagaz il zala esaten eben, baiña ez zan egia. (4) Nafarroako II Blanka = 1.424an Oliten jaio, eta 1.464ko Otsaillaren 12an Euskalherriko Iparaldean Biarnoren Leskarreko bizkonderrian il. (5) V. Fernando katolikua=Aragoiko Sos errian 1.452an jaio zan, ta 1.516ko Urrilaren 23an, Kazerezeko Madrigalejon il. (6)Mozorroaren estalpenagaz=ocultación, disfraz.(7) I Karlos = 1.500 1.558.



1.3. Bizkaiko Jauntza.

Gure jauntza, 888an Padurako⁽¹⁾ borroka lazgarri ostetik Jaun Zuriagaz asi ta aurrerantzean, gure aukeratutako jaunak be, oso abertzale aundiak izan ziran, areik eta gauzak naspiltzen asi ziran arte, adibidez: 1.137an IVn Lopek Gaztelako VIIIn Alfonsoz batera, Nafarroako VIIn Garsea edo Gartzia-aren aurka borrokan ibili zalako, bera kendu eta Nafarroako erregegaz itzarmendu giñan.

1.454an Gaztelako IVn Enrike Bizkaiko jauntza artu eban eta 1.470ean Epaillaren 4an Mungia-ko guda ostetik, jauntzatic bota egin genduna, bere ugaz arreba I Isabel⁽²⁾ ipinita.

Eta ainbategaz bardin edo al gendun eran, nai guda keñuakin batzuetan IIIn Felipe espainiako erregeari bezela eta abar.

Bizkaiko jauntza, Europa ta Nafarroako arazo bardiñakaz iraun bear izan eban asieratik.

Danen antzera guk be, erromatar katolikotasunezko asmakuntz sakratuaren txeberazko sare orreitan sartuta asi bear gendulako.

Eta Bizkaiko gizarte ta Batzarrak euren jabetasunean, indarrezko babes ausarta aundiak eginda be, 1.371ean Abenduaren 20an gure jauntza, 13 urte eukazala espainiako errege izango zan I Juanen⁽³⁾ eskuetan jausi zanetik, txeberazko sare orreik zabaldu ta sendotu egin ziran.

Ortik aurrera, espainiako erregeen eskuetan egon dalako gure jauntza. 1.876an Uztaillaren 21ean guztiz ertsi⁽⁴⁾ edo Euskalerrria morroitasunean giltzapetu arte.

(1) Padura = borrokaren ostetik Arrigorriaga deituko zana. (2) Latin kume = romance castelano, o, navarro-aragones. (3) IIIIn Santxo Garzez "Aundia" = 965ean jaio, 999-1.035 errege. (4) Ertsi= clausurar, cerrar. Edo morroitasunean giltzapetu arte = encerrados bajo amenaza de las armas al servicio de los que dicen llamarse españoles.

Europa, Euskalerrria eta Bizkaiaren gaurko Menperatzaille oneik, betiko askatasuna galdu egin dogula esan gura dabe ?.

EZ !!

Bizitz oneitan Askatasuna galtzen dauenak, nortasunean galdu edo ilda dagoela esan gura dau-lako. Eta Euskalerrriaren Egoalde ta Iparraldeko euskaldunak, bizi bizirik gagoz oraindiño.

Bereztasunezko legearen bidera aokatuta gagoze-lako, Demokrazizko bideak artzen doguzanean,

Jainkoak ipinitako Legearen bideak artzen dogu-zela esangura dau.

Orregaitik, buru otzakin eta demokrazizko zen-tzu aundiz jokatuta, lortuko dogun gauza da, munduko bizitz au norkeriaren maltzurrezko gu-zurzak, amiltegitik⁽⁵⁾ ez badabe botaten.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.013'an Urtarrilla'ren 15'ean



(5) Amiltegitik = precipicio, despeñadero.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



ARRPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

Ondarroa

Boga, boga
mariñela
mariñela
joan bear degu
urrutira
urrutira
bai Indietara,
bai Indietara.
Ez det,
ez det,
ez det,
nik ikusiko
zure kai ederra
kai ederra
Agur,
agur,
agur,
Ondarroako
itsas
itsaso bazterra,
itsas
itsaso bazterra.
Mariñela,
mariñela,
boga!
mariñela.

